


GLUP, GLUP! PROGRAMA



XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran eman zen iraultza industrialaren ondorioz (eta horren adibide garbia Arrasate bera da), aisialdiaren zabalkuntza etorri zen. Ur-inguruneak aisialdirako eremu aproposak dira; hasieran herritarrak ur-ingurune naturalak erabiltzen hasi ziren beraien gozamenerako. Beranduago agertu ziren kiroldegiak (Arrasatekoa 1977.ean inauguratu zen), azpiegitura moderno gisa eta horien baitan igerilekuak.

Udal askok beraien herritarrentzat putzu balioanitzak eraiki zituzten eta aisialdia garatuz joan den heinean, espazioa antolatzeko beharra ikusi da. Igeriketa Lehen Hezkuntzako *kurrikulum*-ean lantzen den bezala, herritar gehiengoaren urarekiko ezagutza maila handituz joan da eta urarekin erlazioatutako aisialdia ere garatuz joan da. Gaur egun igerilekuek (Udalekoak askotan, Arrasateren kasua bezala) herritarren behar ezberdinei erantzuten saiatzen dira: biziraupenerako helburua (urarekiko egokitzapen ikastaroak); helburu hezigarria (Igeriketa Sustapen Kanpaina; talde ezberdinen programak [DBH-Batxilergoa; Aita Menni; etab.]); kirol helburua (igeriketa estiloen inguruko ikastaroak, igeriketa, *aquagym*, waterpolo, igeriketa sinkronizatua, jauzi akrobatikoak eta hondartzetan: *surf*-a, *windsurf*-a, etab.); helburu terapeutikoa (lesioen erreperazioa; gaixotasunen aurkako terapia; burua esnatzeko) eta, noski, helburu ludikoa. Udal ezberdinetako Kirol Teknikariak herriko eskaerari egokitzeko asmoz, aipaturiko helburu guztiei erantzuten saiatzen dira, horretarako baliabide ekonomikoak bideratuz eta espazioak antolatuz. Honen harira, *Glup,glup!* programa hau udal-igerilekuak dituen talde jakin batzuen helburu ludikoari erantzutera dator, orain arte egon den hutsunea betetzeko asmoz. Helburu ludikoari soilik bideratutako putzua ez dela jakinda, programa saiatzen da urte luzez garatuz joan den eskaera soziala asetzen.

Halaber poliki-poliki Administrazio ezberdinak ur-ingurune naturalak egokitzen joan dira (urtegiak, hondartzak, errekek) eta joango dira, uda partean igerileku artifizialen (kiroldegietakoak) osagarri beharrezkoak bilakatuz, herritarren eskaerari erantzuteko asmoz. Arrasate ez da salbuespena eta hor dago ba herritar talde batek Udaletxean aurkeztutako plana, Aramaio ibaian 2 igerileku natural egokitzeko, plana azterketa prozesuan badago ere.

Gaur egun bailaran eta inguruan dauden ur-baliabideak helburu ludikoa asetzeko: udal-igerilekuak; Usakoko presa eta bestelako putzuak Artixa errekan (Oñati, bidegorriarekin irisgarritasun maila altukoa); Bergarako udal-igerilekuko putzu ludikoa; Elorrioko udal-igerilekuko putzu ludikoa; Albinako urtegi "basatia" eta Landa eta Garaio hondartzak Ullibarri-Ganboako urtegian; Debako hondartza (*Lurraldebus*-eko zerbitzu eskusiboarekin oso erakargarria); Arrasateko Udala auzoko *Uxarte* igerileku pribatua; Zumarragako udal-igerilekuak; Gasteizko Gamarra eta Mendizorrotzako igerilekuak; bestelako erreketako putzu txikiak.

1. ERAGILEAK



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

KIROL ■
Zerbitzua ■
■



Kale hezitzaileak
Arrasate



2. HELBURUAK

- Igerilekuak dituen erabiltzaile talde jakin batzuen behar ludikoei erantzun, orain arte egon den hutsunea betez.
- Aisialdian euskararen erabilera sustatu.

3. NORENTZAT

- 0-4 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat.
- 5-18 urte bitarteko ume zein gazteentzat.

4. EGUTEGIA, ORDUTEGIA ETA BERE BEREZITASUNAK

4.1. 0-4 urte bitarteko familiak

Asth.	Astear.	Asteazk.	Osteg.	Ostir.	Larunb.	Igand.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

- Ordutegia: 10:15etatik 13:15ak arte.

- Kupoa: 30 familia eguneko.

- Prezioa: kiroldegiko bazkideek doan. Gainontzeko familiek 6 €.

- Ludikotasun modalitatea: jolas librea eta jolas erdi-gidatua.

- Materiala: Kirol Zerbitzuak eskainitakoa. Etxetik ekarri ahal da espazio handirik okupatzen ez duen material pertsonala beti ere ura zikindu edota kutsatu ahal ez duena.

- Hezitzaileak: ez.

- Txandak: ez dago.

- Espazioa: ikus. beherago krokisa.

4.2. 5-12 urte bitarteko umeak

- Ordutegia: 16:45etatik 19:00ak arte.
- Txandak: 16:45etatik 17:45etara; 18:00etatik 19:00etara.
- Kupoak: 5-7 urte bitarteko 20 ume; 8-12 urte bitarteko 40 ume.
- Espazioa: 5-7 urte bitartekoak ig. txikiko erdia; 8-12 urte bitartekoak ig. handiko 3 kaletan (ikus. beherago krokisa).
- Harmaila: uretan dauden umeek ezin izango dute harmailetan askaria jan.
- Ludikotasun modalitatea: jolas erdi-gidatua; jolas gidatua.
- Materiala: Kirol Zerbitzuak eskainitakoa. Etxetik ezin izango da materialik ekarri.
- Hezitzaileak: bai.
- Prezioa: ludoteka/gaztetxokoko bazkideak doan. Gainontzeko umeek 1,5 €.

Asth.	Astear.	Asteazk.	Osteg.	Ostir.	Larunb.	Igand.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

4.3. 13-18 urte bitarteko gazteak

Asth.	Astear.	Asteazk.	Osteg.	Ostir.	Larunb.	Igand.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

- Orduetgia: 16:45etatik 19:00ak arte.
- Txandak: 16:45etatik 17:45etara; 18:00etatik 19:00etara.
- Kupoak: 13-18 urte bitarteko 40 gazte.
- Espazioa: ig. handiko 3 kaletan (ikus. beherago krokisa).
- Harmaila: uretan dauden gazteek ezin izango dute harmailetan askaria jan.
- Ludikotasun modalitatea: jolas erdi-gidatua; jolas gidatua.
- Materiala: Kirol Zerbitzuak eskainitakoa. Etxetik ezin izango da materialik ekarri.
- Hezitzaileak: bai.
- Prezioa: ludoteka/gaztetxokoko bazkideak doan. Gainontzeko gazteek 1,5 €.

5. ALDAGELEN ANTOLAMENDUA

- Familiak (0-4 urte bitarteko umeekin): gurasoaren sexuko aldagela orokorrean.
- 5-7 urte bitartekoak: umearen sexuko taldeentzako aldagelan. Hezitzaileen bitartez laguntza eskaintzen bada (A aukera), umearen sexu bereko hezitzaile bat. Gurasoen bitartez laguntza eskaintzen bada (B aukera), guraso bakarra (edozein) sartu ahalko da aldagelan umeari laguntzeko.
- 8-12 urte bitartekoak: umearen sexuko aldagela orokorrean.
- 13-18 urte bitartekoak: gaztearen sexuko aldagela orokorrean.

Azken 2 talde mota hauei bideratutako arauak:

- Zaindu ahotsaren bolumena, ez zaudete bakarrik aldagelan. Errespetatu itzazue beste erabiltzaileak.
- Arropa takilatan gorde (nahiz eta ez giltzapetu) eserlekua libre uzteko.
- Ura neurritz erabili.
- Komuna ez da jolas-lekua.

6. LANGILE KOPURUA ETA ROLEN BANAKETA

- Igande goiza: familiak datozenean, hezitzaileak ez da behar, soroslea bakarrik. Bera izango da arduraduna materiala ateratzeko, erabilera zuzena egiten dena ziurtatuko duena eta 13:15etan materiala gordeko duena.
- Igande arratsaldea: soroslea eta Txatxilipurdiko hezitzaileak izango dira materiala atera eta prestatuko dutenak 16:20etan fitxatuta. Erabilera zuzena egiten dena ziurtatzea guztioi dagokie.
 - A aukera: soroslea + 5 hezitzaile. Hezitzaile bat torneoan kupoak eta txandak kontrolatzeko. Hezitzaile neska bat 5-7 urteko neskatilei aldagelan laguntzeko eta igerilekura joaten eta irteten laguntzeko. Hezitzaile mutil bat 5-7 urteko mutikoei aldagelan laguntzeko eta igerilekura joaten eta irteten laguntzeko. Hezitzaile bat ig. txikiko jolas eremua antolatu eta kontrolatzeko. Hezitzaile bat ig. handiko jolas

eremua antolatu eta kontrolatzeko. Soroslea: sorosle lanak eta jolasaren kurba grafikoa kontrolatu istripuak ekiditeko eta materialaren erabilera zuzena bermatzeko.

- **B aukera:** soroslea + 3 hezitzaile. Hezitzaile bat torneoetan kupoak eta txandak kontrolatzeko. Gurasoak taldeentzako aldageletan 5-7 urteko neska-mutikoei laguntzeko. Hezitzaile bat (mutila) 5-7 urteko umeak igerilekura eramateko, bertatik ateratzeko aldagelaraino eta ig. txikian/handian jolas eremua antolatu eta kontrolatzeko. Hezitzaile bat (neska) 5-7 urteko umeak igerilekura eramateko, bertatik ateratzeko aldagelaraino eta ig. txikian/handian jolas eremua antolatu eta kontrolatzeko. 13-18 urteko gazteekin 2 hezitzaile soilik egon ahal dira, bat torneoetan eta bestea igerileku handian.

19:01etan, umeak zein gazteak aldageletan dauden unean, soroslea eta hezitzaileak erabilitako materiala gordeko dute eta 19:30etan igerilekua itxi egingo da, normaltasunez.


7. UR-INGURUNeko ANTOLAMENDUA

7.1. Igande goiza (familiak 0-4urteko umeekin)

7.2. Igande arratsaldea 5-12 urteko umeak


7.3. Igande arratsaldea 13-18 urteko gazteak

Igande arratsaldea (5-12 urteko umeak)



Hamailetan gurasoak sartu ahaliko dira. Bideo zein argazkirik ez, distantzia horretatik plano orokorrak lortzen baitira eta igerilekua erabiltzaile guztiei dagoelako zabalik, ez soilik *Glup,glup!* programarako. Txatxilipurdikoek euskarazko aldizkariak eskain diezazkiekete gurasoei entretenituta egoteko eta euskararen erabilera sustatzeko.


Euskarazko musika jarri ahaliko da espazioa girotzeko bolumen onargarrian



Erabili ahal diren eserlekuak toailentzat

Erabili ahal diren eserlekuak toailentzat

Igande arratsaldea (13-18 urteko gazteak)



8. PROGRAMAREN IRAUPENA

Glup, glup! programa barruko igerilekua zabalik dagoen bitartean mantenduko da, hots, urritik hasita ekainera bitartean. Interesgarria izango litzateke luzapena ematea programa honi kanpoko igerilekuan ere, zenbait egokitzapen eginda: bibliopisina, lehorreko jolasetarako eremua egokitu, txirristen gune iraunkorra, etab.

9. PROPAGANDA EGITEKO BIDEAK

Edozein zerbitzuren existentziaz herritarrak jabetzeko propaganda egitea ezinbestekoa da, bestela lana alferrikakoa gerta daiteke. Hona hemen erabili ahal diren bideak:

- Kartelak: ikastetxetan, ludotekatan, gazte-txokotan, tabernetan, kalean dauden adierazpen libreko paneletan.
- Iragarkiak: bailarako hedabideak aprobetxatuz (Goiena, Mondraberri, El Diario Vasco, Berria, etab.).
- Ahozko mezua: bozgorailuak jarrita Kirol Zerbitzuko ibilgailuari eta kalez kaleko erronda eginda (hauteskunde garaian egiten den bezala).
- Etxez etxeko eskutitzak bazkideei edota *Whatsapp*, posta elektronikoko bidez.

10. IRADOKIZUNAK, ALDAKETAK, ERANSTEKO OHARRAK